



## Errausketaren aurkako martxa jendetsua

Antolatzaileen aurreikuspena gainditu zen

**E**guraldia lagun, hainbat izan ziren atzo Errausketaren kontrako Mugimenduak deitutako martxarekin bat egin zuten herritar eta eragileek. Lasarte-Oria izan zen bilgune. Hernani, Donostia, Añorga, Errekalde eta Urnietatik zetozen taldeek herritarrekin bat egin zuten Okendo plazan. Bertatik Zubietara bidea hartu zuen

martxaren arduak eta 'Erraustegirik ez' oihuak entzun ziren herriko kaleetan.

Zubietan beste herrietako taldeekin bat egin eta Gipuzkoako Foru Aldundiak errausketa planta eraiki nahi duen eremura igo ziren. Inguruetako herrietako ehunka lagun bildu ziren 0 puntua izeneko lur sailan.

Bertatik jaitsi eta 13:00ak aldera Zubietan ekitaldia izan

zen. Joseba Tapiak aurkeztuta, Ane Labakak eta Asier Azpirozek bertsoak bota zituzten.

Ostean, Estitxu Izagirrek eta Teresa Teresa Lopez de Munainek errauskailuaren aurkako manifestua irakurri zuten.

Eta azkenik, Zubietako erreboteko pilotalekuan 'Errausketarik ez' kartel erraldoiaren inguruan argazkia atera zuten guztiak.



### 3 JAIK

#### San Pedro Jaietarako proposamenak egiteko epea da

Lasarte-Oriako Udalak 2016ko San Pedro Jaien egitaraua osatzeko proposamenak egiteko epea ireki du. 'Jaietan blai' eskuorrian egin ahalko dira iradokizunak eta udal postontzietan utzi beharko dira. Honetaz gain, Udalak txozna guneak jarriko ditu. Elkarte edo ostalariek gune hauen eskaera egin ahalko dute.

### 4 SAHARA

#### Sahararren egoera salatzen ekintzak egin ziren

Larunbatean, Saharar Errepublikari Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zeneko 40. urterena zen. Data hau ospatu eta sahararrek bizi duten egoera salatzen hainbat ekintza egin ziren Euskal Herria osoan. Gure herriak ere bat egin zuen ospakizunekin, hala nola, elkarretaratzea edo argazki erakusketa izan ziren.



### 5 BERTSO AFARIA

#### Bertso saio ederra literatura eta gizartea aztertuz

Danele Sarriugarteren eskutik, Ana Labaka, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga Irakurle Txokoan aztertutako liburuen pertsonaiak bihurtu ziren bertso saio berezi honetan. Honetaz gain, gaur egungo gaiak ere jorratu zituzten. Xirimiri elkartera hurbildu ziren hirurogeita bost herritarrek saioaz gozatu zuten.



## GURUTZETA SAGARDOTEGIA

Astelehenean larunbatera eguerdi eta gauetan zabalik (igandea itxita)

- > Astelehen, astearte eta ostegunetan menua 22€
- > Asteazkenetan "OTXOTEA"
- > Enkarguz bakailoa saltsan eskatu daiteke



## KULTURA

## Zinema eta antzerki aukera zabala martxoan

Nazioarteko Emakumeen Eguna dela eta zenbait ekintza antolatu dituzte

Martxoko kultur agenda aurkeztu zuen Udalak ostiralean. Martxoaren 8a Nazioarteko Emakumeen Eguna dela baliatuta zenbait egitasmo antolatu dituzte. Besteak beste, zinema, antzerkia eta ipuin erotikoen kontaketa. Aste Santua hileko azken egunetan egokitu denez, egun horietan kultur ekintzarik ez dute programatu. Otsailean jasotako "harrera bikaina" nabarmendu du alkate Jesus Maria Zaballosek.

**K**ultur ekintza anitza dute lasarteoriarrek martxoari begira. Zinemarekin, antzerkiarekin eta ipuin kontalariarekin gozatzeko parada izango dute, besteak beste.

**Zinema**

Haurrei eta helduei zuzendutako filmak ikusi ahal izango dira Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioan.

Nazioarteko Emakumeen Eguna dela eta, Okendo Zinema Taldeak 'Sufragistas' lanaren zine-foruma egingo du hilaren 4an 22:00etan. Aste horretako igandean berriro

ikusi ahal izango da 19:30etan.

Haurrei zuzendutako 'Koko Dragoi Txikia', 'Zootropolis' eta 'Pesadillas' emango dituzte 6ean, 13an eta 20ean arratsaldeko 17:00etan.

'Bendita Calamidad', '45 segundu' eta 'La Gran Apuesta' ere proiektatuko dituzte. Lehen bitan, 12an eta 13an, eta beste biak 18an eta 20ean.

**Antzerkia**

Txikiak 'Pintto Pintto' antzezlana ikusi ahal izango dute 12an.

Bestalde Kukukak 18an antzerki topaketak antolatu



Udal ordezkariak eta kultura teknikariak martxoko egitaraua aurkezten.

ditu. Bai kalean baita kultur etxean ere emanaldiak egongo dira.

Martxoaren 8a baliatuz 'Un espíritu burlón' antzeztuko dute 11ean. Halaber, bezperan, umeentzako ipuin kontalaria egongo da liburutegian. Nagusiek, berriz, ipuin erotikoak

entzungo dituzte hitzaldi artoan.

**Musika, dantza eta artea**

Kresala Dantza Taldeak 'Oteiza Kaxa Beltza' emanaldia eskainiko du 5ean kultur etxean, XII. Dantza Zirkuitoaren banean.

Musikeneko ikasleek osa-

tutako hari-instrumentu talde baten kontzertua egongo da 18an.

Berpizkundeko artearen maitaleek 19an edukiko dute zita kultur etxean, 'Florentzia eta Uffizi galeria' proiektio digitala emango baitute "definizio oso altuan".

## Musika klasikoa adinduen eskura



Rosat eta Ruti hirukoak maila ederra erakuti zuen atzo goizean Atsobakar zahar egoitzan eskaini zuten kontzertuan.

**H**aydn, Beethoven, Devienne eta Stamitz konpositoreen musikaz gozatu ahal izan zuten atzo Atsobakarreko egoiliar eta bere familiarek, Rosat eta Ruti hirukoaren eskutik.

Maila handiko emanaldia eskaini zuten Carlos Rosat flauta jolea, Tomas Ruti Vilar biolin jolea eta Tomas Ruti Parra fagot joleak.

Hiruko honek bertan jotzen duen lehen aldia bada ere, Tomas Ruti Vilar eta Carlos Rosat behin baino gehiagotan izan dira Atsobakarren hainbat piano joleren laguntzaz.


EOSko bi irakasle hauek normalean musika iristen ez den lekuetara eramaten saia-

tzen dira. Gainera, kontzertu hauek pertsona adinduei egindako omenaldi dira haien zati.

Oraingoan, klasizismoko eta erromantizismoko doinuek XIX. mendera garraiatu zituzten entzuleak.

Era honetara, hiruko berezi honetara moldatutako lanak eskaini zituzten. Haydn Sol Maiorren dagoen 3. hirukoa, Beethovenen 'Lá ci darem la mano' lanaren moldaketak, flauta eta biolinarentzat egindako Devienne Ariaren moldaketak edo Stamitzen Sol Maiorren dagoen hirukoa.

Egoiliar eta familiarek ederki eskertu zuten musikarien lana.

**Diruz laguntzen duten erakundeak****Babeslea**

**LASARTE-ORIA**  
UDALA

**Laguntzailea****Argitaratzailea:**

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557

**Legezko gordailua:**

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

**Inprimategia**

Zeroa Multimedia, S.A.

**Aleak zenbakiko:** 7.800

**txintxarri****Erredakzioa:**

Nerea Eizaguirre, Martin Vicioso,  
Iñigo Gonzalez.

**txintxarri@txintxarri.eus**

**Publizitatea:** Arantxi Zulaika  
**publizitatea@ttakun.eus**

**Laguntzaileak:**

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odriozola, Maider Segurola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Edu Galardi

**Informatikoa:**

Xabier Amadoz

## SAN PEDRO JAIK

# Jaietako parte hartze prozesua abiatu du Udalak

Txoznak jartzeko eta proposamenak luzatzeko epea hasi da

San Pedro jaietarako lau hilabete eskas falta direla, Lasarte-Oriako Udalak parte hartze prozesua abiatu du. 'Jaietan blai' izeneko eskuorrian herritarrek euren proposamenak idatz ditzakete. Bestalde, txozna guneak jarriko ditu Udalak Okendo eta Antonio Mercero plazetan. Eskaera hilaren 15a baino lehen egin beharko dute interesatuek.

## TXINTXARRI

Jaietako prestakizunak hasi ditu dagoeneko Lasarte-Oriako Udalak. Gazteria, kirola eta festak saileko zinegotzi Txus Alonsok jakinarazi du bi parte hartze prozesu hasi dituztela.

**Jaietan blai**

San Pedroetara begira proposamenen bat duten herritarrek 'Jaietan blai' izeneko eskuorria betetzeko aukera izango dute.

Festetarako edozein eskaera idatz dezakete herritarrek. Ikusi nahiko luketen musika taldea, antolatu nahi duten ekintzaren bat edota jaiak hobetzeko edozein aholku.

Martxoaren 10a baino lehen herrian zehar dauden Udalaren postontzietan sartu beharko dituzte eskuorriak.



Jaietako teknikariak eta Udal ordezkariak aurkeztu zituzten neurriak.

Alonsok herritarrek gonbidatu ditu euren ideiak partekatzen.

**Txoznak**

Bestetik, Udalak lau txoznagune jarriko ditu Okendo eta Antonio Mercero plazetan. Edozein elkarte edo ostalarik egin dezake eskaera hilaren 15aren aurretik.

Lauk baino gehiagok izena emanaz gero, zozketa egingo lukete, elkarte eta eragileei lehentasuna emanaz.

Alkate Jesus Maria Zaballosek azaldu duenez, helburua jaiak ahalik eta talde eta norbana

nako gehiagorengana zabaltzea da. Azaldu dutenez, Lasarte-Oriako Udalak txoznak jartzeko lekua utziko luke soilik. Egitura elkarte, eragile edo ostalarien esku geratuko litzateke.

"Herriko talde eta norbana-ko gehiagoren inplikazioa" lortu nahi dute ekimen honen bitartez. Horregatik, eragile ezberdinak gonbidatu ditu eskaera egitera.

E-mailez edo telefono bitartez egin daiteke, esan bezala, 15a baino lehen.

Guneak esleitzeaz, "bilera informatiboak" egingo dituztela jakinarazi du Alonsok.

## BIYAK BAT

## Errioxara irteera

Biyak Bat erretiratuen elkarteak Errioxako Pradejon herrira irteera antolatu du. Bidaia martxoaren 15ean, asteartean, izango da. Pradejonean txanpiñoi eta perretxikoak hazten diren zentro didaktiko eta ikus-entzunezkoa bisitatuko dute. Bazkaria Hostal Venecian izango da.

Irteeran parte hartzeko bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, aldiz, 45 euro.

Izena ematea martxoaren 2tik aurrera elkartearen egoitzeko bulegoan egingo da astelehenean ostiralera 10:30etik 12:30era.

## Kontsumobideko hitzaldiak

Biyak Bat erretiratuen elkarteak bi hitzaldi antolatu ditu Kontsumobideren laguntzaz. Martxoaren 1ean Lara Amezagak 'Ventas fuera de establecimientos' hitzaldia eskainiko du; martxoaren 3an, aldiz, Ainhoa Orrontziak 'Consumo sostenible'. Bi hitzaldiak arratsaldeko 18:00etan hasiko dira.

Hauetan parte hartzeko elkartearen egoitzeko bulegoan izena eman behar dela jakin arazten du elkarteak.

## Michelineko jangelarekin akordioa

Biyak Bat erretiratuen elkarteak bere bazkideei jakin arazten die, Michelin enpresako jangelarekin akordio batera iritsi dela. Honen bitartez, Blas de Lezo kalean dagoen jangela erabili dezakete bazkaltzeko, astelehenean ostiralera 12:00etatik 14:30era, elkartearen kide direla esanaz.

Menuak 8 euro balio ditu eta lehenengo eta bigarren platera, postrea, ogia eta alkoholik gabeko edari bat daude barne. Janaria etxera eraman daitekeela ere jakitera eman dute elkartearen kideek.

Asteroko menuak Biyak Bat egoitzeko taulan egongo dira ikusgai. Informazio gehiago nahiez gero, egoitzeko bulegora hurbildu behar dira interesatuek.

## ERRIGORA

## Oliba olio eskatzeko azken egunak

Errigora ekimeneko 'Eskutik eskura' Nafarroa hegoaldeko produktuak kanpainako oliba olio eskaera martxoaren 2an, asteazkenean amaitzen da.

Ekimen honi esker, Nafarroako Erriberako olio ekologiko edo konbentzionaleko bost litroko bidaiak eskuratu daitezke ekoizlearen eskuetatik: 32 euro balio du olio ekologikoak, eta 22,50 konbentzionalak.

Oliba eskuratu nahi duten herritarrei gogorarazten zaie *errigora.eus* orrialdean edo herriko Ttakun kultur elkarte, Muntteri-AEK euskaltegia edo LAB sindikatuan, baita Xumela koruan ere eskaerak jasotzen dituztela.

## UDALA

## Ura eta estolderia tasa

Lasarte-Oriako Udaleko Zergabilketa bulegoak zergadun guztiei jakinarazten die, 2015. urteko hirugarren lauhilekoari dagokion ura eta estolderiaren tasa ordaintzeko borondatezko epea 2016ko martxoaren 15ean amaitzen dela.

Helbideratu gabe dauden errezihoak banku eta aurrezki kutxetan edo Lasarte-Oriako Udalaren web orrialdean ordaindu ahal izango dira. Errezioa helbideratua dutenei, aldiz, borondatezko epearen azken egunean kargatuko zaie.

Ordain gutuna jaso ez duenak edo beste aleren baten beharra duenak, Udaletxeko hirugarren solairuan kokaturiko Zergabilketa bulegora jo dezake edo 943 37 61 87 telefono zenbakira deitu.

Borondatezko epearen azken egunetik aurrera, ordaindu gabeko errezihoak dagokion errekararekin premiaz eskatuko direla jakinarazten du Zergabilketa bulegoak.

## ISLADA EZKUTATUAK

## Eskertza ekitaldia

Islada Ezkutuak taldeak martxoaren 6an harekin batera lanean aritu diren herritarrek eta euren testigantzak partekatu dituztenak eskertuko dituzte.

Ekitaldira Lasarte-Oriako Udalbatzar aretoan egingo dute eguerdiko 12:00etan.

Honetan, besteak beste, 2015ean lagundu duten kideek oroigarri bana jasoko dute.

## 2017ko Inauterietako proposamen ugari

Lasarte-Oriako Udalak 2017ko Inauterien gaia lehenbailehen zehaztearren, mozorroetarako proposamenak eskatuz kanpaina jarri zuen martxan.

Udalak jakitera eman duenez, postontzietara 412 proposamen heldu dira. Herritarren erantzun hori dela eta, Udalak bere poza agertu nahi du, "festa horiekin oso motibatuta daudela erakutsi baitute".

**Gaiak**

Honetaz gain, Udalak azpimarratu duenez porposamenen artean gai bat modu harrigarrian gailendu da, "lanbideak" gaia. Honek 250 lagun baino gehiagoren babesa izan du.



Aurten itsaso izan da protagonista gure herriko kaleetan.

Hurrengo proposamenak "bideoklipak", "Izarretako Gerra" eta "animaliak" izan dira.

**Aukeraketa**

Udalak aurreratu duenez, martxoaren 2an bilera egingo da konpartsekin, 2016ko Inauterien balorazioa egiteko

eta 2017rako gaia hautatzeko, betiere egindako proposamenak oinarritzat hartuta.

Behin erabakia hartutakoan, herritarrei ezagutzera emango zaie, datorren urteko mozorroak eta karrozak garaiz prestatuz joateko aukera izan dezaten.



Larunbata eguerdian Saharako Lagunak taldeko kideak, herritarrak eta udal ordezkariak elkarretaratzean.



Antonio Mercero aretoan kanpamentuetako argazki erakusketa izan zen ikusgai.



Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren bandera Udaletxeko balkoian.



Elurtzan Saharari buruzko dokumentalak eta teaz gozatu zuten herritarrak.

## Sahararren egoera salatuz Irudien bidez, kanpamentuetako bizia azaldu zen

Larunbatean 40 urte bete ziren Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zena. Eguna gogoratu nahian, Lasarte-Oriako Saharako Lagunak taldeak ekintzak antolatu zituen.

TXINTXARRI

Ostegunetik Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren bandera da ikusgai Udaletxeko balkoian. Herritar askok harrিতa begiratu dute egun hauetan bandera hori.

SEAD aldarrikatu zeneko 40. urteurrenaren ospakizunetako aurrekari izan da Udalak herrialde honetako bandera jartzea. Izan ere, Saharako Lagunak taldeko kideen ekimenez, otsailaren 10ean Udalbatzarrak aho batez onartutako puntuetako bat izan zen hori.

### Elkarretaratzea

Honetaz gain, taldeak egitarau berezia antolatu zuen larunbaterako.

'Maroko Sahararik at, independentzia' lelopean elkarretaratzea egin zen Okendo plazan.

Taldeko kideak, herritarrak eta udalbatzar kideak bildu ziren honetan eta erreferenduma eskatzearen alde agertu ziren.

### Saharar kanpamentuak

Bestalde, saharar errefuxiatuen egoera ezagutu ahal izan zen Antonio Mercero gunean jarri zen argazki erakusketari esker.

Garikoitz Lasa donostiarrak, batez ere, Smarako kanpamentuan ateratako irudiak egon ziren ikusgai. Gure herrian bizi diren sahararrek azalpenak eskaini zizkieten honetara hurbildu ziren herritarrei.

Elurtza tabernan, aldiz, Saharari buruzko dokumentalak ikusi ahal izan ziren. gainera, sahararrek prestatutako teaz ere gozatu ahal izan zuten.

### Erreferenduma

Suitzako talde batek bultzatuta, Mendebaldeko Saharan erreferenduma egiteko kanpaina berri bat abiarazi da eta honekin bat egin du Lasarte-Oriako taldeak.

Helburua 2017. urtea amaitu aurretik galdeketa egitea da. Atxikipena hatza urdinez margotzen adierazten da.

## Elebeltzi babesak eskaini zioten herritarrek

Ostegunetik, Elebeltz Sor-kuntza eta Eztabaida Askerako Topagunearen aldeko oihuak entzun ziren gure herriko kaleetan.

"Elebeltz aurera" lelopean hainbat izan ziren plataformekin bat egin zuten gazte eta herritarrak eta Lasarte-Oriako kaleetatik barrena topaguneari haien babesak eskaini ziotenak.

### Komunikatua

Okendo plazara iraitsean, Elebeltzen izenean otsailaren 10eko Udalbatzarrean alkateak esandakoari erantzunez manifestua irakurri zuten.

Honetan bere kezka agertzen du udalbatzarrean entzundako adierazpenekin.

Elebeltz Multimuskala eta herriko beste mugimendu kulturekin nahasteak alkateak gazte dinamika eta herri mugimenduen inguruko ezja-

kintasan larriaren adierazle dela azpimarratzen du. "Ekintza musikaletaz gain, sorkuntza eta eztabaida askerako gune ere bada, inongo alderdi edo korrante, marka edota ekita zehatzak lotesle izan gabe."

Alkatetzak aipatutako legezketasunaren harira, "ez da inongo momentuan planteatu bete beharreko lege hori justua den eta herriko kultur ekintzaileentzat zein ondorio dituen. Are gehiago, ez da inongo momentuan legea betetzeko dauden modu ezberdinetaz hitz egin," adierazten du.

Honetaz gain, Alkateak Madrid Arenarekin alderatu zuen Elebeltz. Topagunea irabazi asmorik gabeko proiektua dela azpimarratu eta kritikotasuna bultzatu eta "kultura negoziario baina, oxigeno gisa planteatzen" duela



Elebeltzen aldeko plataformak eta hainbat herritarrak manifestazioa egin zuten Topagunearen alde.

gogora ekartzen dute.

Lasarte-Oriako Udala eta gazteriaren arteko harremana ere aipatzen da. "Espazio aske eta autogestionatuen kontua hiru hamarkadetan zehar ezistitu den aldarrikapena da, udalaren kolaborazio ezaren ondorioz normalizatzea ezinezkoa izan dena". Honen harira galdera bat ere egiten dio Udalari,

"zergatik ez da inoiz ekin gazteriarekin batera espazio autogestionatu bat lortze bidean udalaren tutelarik gabea?"

Era berean, Elebeltz udalaren eredu ofizialak herritarren jardun kultural eta sozialak asteko nahikoa espazio erabilgarri jarri ez izanaren ondorio dela azpimarratzen dute, Gaztelekua edota Kultur

Etxearen aukerak mugatuak direla aipatuz.

Elebeltzek elkarriketarako jarrera azaldu beharrean trabak ezarri eredu ofizialarekin bat egiten ez dutenak baztertueta eredu bakar eta mugatua bultzatzen duela salatzen du.

Hau guztiagatik, herritarrak gonbidatzen ditu Elebeltzera hurbildu eta haien proposamenak egitera.



Bertsolariek adi jarraitu zituzten Danele Sarriugarte gai jartzaileak irakurritako liburu zatiak.

J. URRUZOLA



Unai Iturriaga bertso saiko momentu batean.

J. URRUZOLA

## Literatura eta errealitatea uztartuz

Bi orduko bertso saioaz gozatu zuten herritarrek

**Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak antolatutako Bertso Afari Literarioa izan zen larunbata gauean Xirimiri elkartearen. 65 bat lagunek afari gozoa dastatu eta literatura eta bertsoa nahasten dituen ekitaldiaz gozatu zuten.**

### TXINTXARRI

L iteratura eta zehazki Lasarte-Oriako Irakurle txokoak landutako liburu eta pertsonaiak izan ziren protagonista, larunbata gaueko Bertso Afari Literarioan, baita gaur egungo gaiak ere.

Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriagak Danele Sarriugarteren lagun-

tzaz, ia bi orduko emanaldia egin zuten elkartearen bildu ziren hirurogei bat herritarren gozamenarako.

Baina bertsoak baino lehen ederki afaldu zuten guztiak.

### Irakurritakoa gai

Aipatu legez, Danele Sarriugarte izan zen gai jartzaile lanetan eta Irakurle Txokoan

aztertutako liburuetan oinarritu zen hainbat gai proposatzeko.

Liburuaren pasarte batzuk irakurri bertsolari eta entzuleak kokatu eta ostean, bertsolariak liburu horietako pertsonaien papera egin eta bertsoak bota behar zituzten haien egoera azalduz.

Baina literaturaz aparte beste gai batzuk ere jarri zituen Danelek mahai gainean, honela, Lasarte-Oriako jai batzordeak antolatutako kabalगतako errege emakumearen, beltzaren eta errege gay-aren paperean sartu behar izan zuten hiru bertsolariak.



Maialen Lujanbio eta Ane Labaka bertsoan.

M. URRUZUNO

## Kubaren aldaketa ekonomikoaren gakoak

L uismi Uhartek Latinoamerikarekin izan zuen lehen harremana Kuba izan zen. Duela 20 urte brigadista joan zen eta geroztik, hainbatetan izan da bertan, 5 hilabetez bertako unibertsitate batean ere ikasten egon zen. Iaz ikerketa bat egitera joan zen eta honetan oinarrituta, Kubako aldaketa ekonomikoari buruzko bere ondorioak aurkeztu zituen atzoko hitzaldian.

Lehenik, 1898tik gaur egunera arte ibilbide historiko azkarra egin zuen eta data batzuk azpimarratu zituen, 1898 Espainiako independentzia eta AEBren neokolonizazioa, 1953ko altxamendua eta 1959an iraultzaren garai-pena, 1989an Kubako sistemaren krisi sakona, 1993an ekonomia liberalizatzeko erreforma eta 2006tik aurrera, Raul Castrok lehendakaritza hartzea. Honetaz gain, momentu horietako batzuen

irudiak eskaini zizkien Manuel Lekuonako hitzaldi aretora hurbildu ziren herritarrei.

### Hausnarketa

Ostean, Kuban azken urteetan eman den aldaketa ekonomikoari buruzko hausnarketa egin zuen.

2006tik aurrera, Raul Castrok lehendakaritza hartzen duenetik, azken fasea hasten da eta bertakoen hitzetan, Kubako iraultzaren historiako erreformarik sakonena egitean ari dira. "Guztiak eredu ekonomikoa agortua dagoela ikusten baitute". Raul Castrok hitzak ekarri zituen Luisi Uhartek, "sozialismo oparoa eta iraunkorra behar dugu".

Uhartek azaldu zuenez, 2010 eta 2012 urte artean eztabaida bat ireki zen eta eredu aldatzeko neurri batzuk ezarri ziren. Hainbat



Luisi Uhartek Kubako egoerari buruzko hausnarketa egin zuen iaz irlan egin zuen ikerketa batean oinarrituta.

puntu daude bertan zehaztuak, baina Uharteren ustez hiru oinarri dira jarraitzen direnak, batetik deszentralizazioa, bestetik desestatizazio partziala eta azkenik aberastasunaren banaketa eredu berria.

Estatu barne borrokak ere azaldu zituen. Partidu berean dauden hiru korronteak definitu eta hauen helburuak aipatu zituen.

Azkenik, aldaketa ekonomiko honen ondorioz eman daitezkeen balizko agertokiak marraztu zituen.

Nagusia 49,  
Lasarte-Oria  
943 37 02 90

Jantzi denda • 38-60 neurriak

# INQUIETUD

## IZOTZ HOCKEYA.

## Espainiako Kopa jokatu du Kazkabarrak, lehen aldiz

Taldeak ezin izan zuen sailkatu finalerako; 6-4 galdu zuen Majadahondaren kontra

**Bi urte besterik ez daramatza Kazkabarra taldeak emakumezkoen izotz hockeyeko Espainiako Ligan jokatzeko. Urtetik urtera asko ari dira hobetzen. Datuek erakusten dute: iazko sasoiaren bosgarren izan ziren ligan eta kopatik at geratu ziren. Aurten, hirugarren postuan sailkatu dira eta aurrenekoz aritu dira Espainiako Kopan. Hemezortzi jokalarik osatzen dute taldea denera; Lorena Zabala herritarra da kideetako bat.**

INIGO GONZALEZ

Urtetik urtera asko ari da hobetzen Kazkabarra taldea. Zenbakiak ez dute gezurrik esaten: ligan bosgarren geratu ziren iaz, eta kopatik kanpo. Aurten, hirugarren postuan bukatu dute liga, eta koparako txartela lortu dute.

Izotz hockey talde horren hainbat ezaugarri, ordea, ezin dituzte esplikatuz zifra hotzek. Jokalarien erdiak Donostian entrenatzen dute; Gasteizen besteek. Asteburuetan bakarrik aritzen dira denak elkarrekin: partidetan.

Otsailaren 20an ere jokatu zuen Kazkabarrak. Norgehiagoka ez zen izan nolana hiko: Valdemoron (Madril) aritu ziren, Espainiako Kopako finalerdietan.

**David, Goliaten aurka**

Majadahonda taldearen kontra neurtu zituen indarrak Kazkabarrak. Talde madrildarrarena izan da emakumezkoen izotz hockeyaren hegemonia azkeneko zortzi urteetan: liga eta kopa irabazi ditu denetan. Bi titulu denboraldiko. Urte kopuru hori bera darama Kazkabarrak elitean. David eta Goliat aurrez aurre.

Ez David, ezta Goliat ere. Lorena Zabala da Kazkabarraren kapitaina. Lasarteoriatarra da, eta defentsa postuan jokatzen du. Majadahondaren kontra aritu zen bera ere: "Partida oso ona jokatu genuen; markagailuan aurretik ere jarri ginen, baina galdu egin genuen azkenean", azaltzen du Zabalak. 6-4 irabazita, Majadahonda sailkatu zen finalerako, baina ez zuen kopa irabazterik izan



Kazkabarra taldeak Espainiako kopan parte hartu zuen.

berriro; Bartzelonako Ice Blue Cats taldeak altza zuen garai-urra, 3-0 irabazita.

**"Esperientzia bikaina"**

Zirrara handiz bizitu zuten Kazkabarrako jokalariek kopan estreinekoz aritu izana: "Esperientzia bikaina izan da; harmailak beteta zeuden, zaleek etengabe animatzen zuten", aipatzen du Zabalak.

Gogotik egin behar izan dute lan esperientzia hori bizitzeko. Espainiako Liga hiruga-

ren postuan bukatu dute; zortzi partida irabazi dituzte eta lau galdu. Hori dena, arestian aipatutako baldintzetan: taldekide erdiek Donostian entrenatzen dute, Izotz Jauregian, gauerdia arte. Beste erdiak Gasteizen aritzen dira. "Guk esan ohi dugun bezala, partidak dira gure entrenamenduak; asteburuak dira aukera bakarrak denak batera aritzeko", dio kapitainak.

"Egunero-egunero hobetzea" dute xede Kazkabarrako

jokalariek, Zabalak zehazten duenez: "Kopan nabaritu dugu aldea Majadahonda eta gure artean; patinatzeo era, jaurtitzeko, jokatzeo... Oraindik asko ikasi behar dugu".

Denboraldia bukatu dute dagoeneko, baina lan-saioak egiteari ez diote utziko. Gero, uda partean, izotzeko patinak gurgildunengatik ordezkatuko ditu herritarrak; hainbat txapelketatan hartuko du parte. Izotz edo gurgil, horrek ez du ardurara, hockeyean aritzeko bada.

## IGERIKETA.

## Domina festa Iruñean

Buruntzaldea IKTKo sei igerilarik –Itsaso Tolosa, Leire Martin, Irati Arzalluz, Mikel Esnal, Iñigo Ibarburu eta Hartz Mitxelenak– absolutu mailako Euskal Herriko Neguko txapelketan hartu zuten parte otsailaren 20 eta 21ean. Igeriketa egokituko Euskal Herriko txapelketa ere igerileku horretan bertan jokatu zen: Nahia Zudaire gaztea aritu zen horretan.

Balantzea ezin hobea izan zen: hiruna urrezko eta zilarrezko domina, brontzezko bi, hiru marka personal, taldeko errekor bat eta Espainiako txapelketan aritzeko sailkapen bat erdietsi zituzten Euskal Herriko Neguko txapelketan.

Mikel Esnalek bi domina kolkoratu zituen: urrezkoa 50 librean eta zilarrezkoa 100 librean. Marka pertsonalik ez zuen hobetzerik izan, baina ederki aritu zen.



Iñigo Ibarburu bitan igo zen Euskal Herriko txapelketako podiumeko lehen mailara.

Iñigo Ibarburu txapeldun izan zen tximeleta estiloko 50 eta 100 metroetan. Brontzea kolkoratu zuen 100 libreetan.

Itsaso Tolosak ere zapaldu zuen podiuma. Zehazki, bigarren kaxoia, 200 bizkar proban. Hartz Mitxelenak taldeko errekor berria ezarri zuen 400 estiloak frogan, eta podiuma zapaldu 200 tximeletan. Irati

Arzalluz infantilak ondu egin zuen 100 librean zuen marka; gauza bera egin zuen Leire Martin alebinak, 400 estiloetan. Brontzea ere jantzi zuen.

Nahia Zudaire igeriketa egokituko Euskadikoan aritu zen, ezin hobeto: hiru urrezko domina eta zilarrezko bat irabazita, sailkapen nagusiko lehen sailkatua izan zen.

## JUDO.

## Brontzezko domina jantzi zuen Fermin Baldak Espainiako junior sektorean, Zaragozan

LOKEko judoek dominak pilatzen jarraitzen dute, asteburu joan eta asteburu etorri. Fermin Balda Espainiako junior sektorean aritu zen lehian, Monzalbarban (Zaragoza). Borrokaldi oso onak egin eta gero jaso zuen merezitako saria: brontzezko domina. Eneko Eizagirre oriotarra ere aritu zen bertako tatarian; bosgarren postua eskuratu zuen. Orain dela pare bat asteburu aritu ziren judokak bertan.

Jesus Curiel infantilak berriz, Superkopa jokatu zuen Montijon (Extremadura). Maila oso txukuna eman zuen judoka gazteak, baina ezin izan zuen lortu dominarik. Bosgarren postuan amaitu zuen txapelketa Curielek.



Fermin Baldak (ezkerretik hasita 3.a) brontzezko domina lortu zuen.

# Agenda

Larunbata 5, 20:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxea



## Oteizaren lana dantzatzen

Lasarte-Oria dantzan 2016 XII. dantza Zirkuituaren barruan, Kresala dantza taldeak 'Oteiza Kaxa beltza' saioa eskainiko du. Jorge Oteizaren obra aintzat hartzen da euskal dantza-ikuskizun honetan. Ikuspegi kaleidoskopiko bat ematen du, interesa bere "egitekoan" jarrita. Asmo experimentalaren metodoak eta emaitzak, poesia- eta saiakera-sorkuntzak, ikerketak eta haurren heziketa estetikoa... haren lan guztia interpretatzen da. Sarrera, 5,50 euro.

### HAUR LIBURUTEGIA

**Osteguna 10, 18:00etan**  
Etxeko txikiei zuzendutako ipuin kontalaria izango da.

### OKENDO PLAZA

**Osteguna 10, 19:00etan**  
Kukuka dantza eta antzerki eskolako dantza saioa eta jarraian, poteo feminista. Lasarte Moria egitarauaren barruan.

### HITZALDI ARETOA

**Osteguna 10, 19:30ean**  
Helduei zuzendutako, ipuin erotikoak entzuteko aukera izango da.

### LOIDIBAREN PILOTALEKUA

**Ostirala 11, 18:00etan**  
Pala txapelketa eta ondoren, afaria Xirimiri elkartearen. Txartelak 10 eurotan salgai tabernatan. Lasarte Moria egitarauaren barruan.

### SEMBLANTE ANDALUZ

**Ostirala 11, 19:30ean**  
Mabel Arciniega Debagoieneko Ospitaleko Urgentzietako sendagileak elikadura eta minbiziaren arteko loturaz hitz egingo du. Ostean, afaria eta dantzaldia izango dira. Semblante Andaluz elkarrekin antolatua.

### MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

**Ostirala 11, 21:00etan**  
Lan eta Lan antzerki taldeak 'Un espirtu burlon' antzerkia eskainiko du. Sarrera, 3 euro.

## Antzerkia

**MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA**  
**Larunbata 12, 17:00etan**  
Anita Maravillas taldeak 'Pintto, pintto' haur antzerkia eskainiko du. Sarrera, 3,80 euro.

## Lasarte-Oria

### Zinea

**MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA**  
**Ostirala 4, 22:00etan**  
Okendo zinema taldearen eskutik, 'Sufragistas' filma ikusteko aukera izango da. Ostean, filmari buruz mintzatuko dira. Sarrera, 5,50 euro.

### MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

**Igandea 6, 17:00etan**  
Haurrentzako zinea atalean, 'Koko dra-go'i txikia' animaziozko filma ikusgai izango da. Sarrera, 3,80 euro. Euskaraz.

### MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

**Igandea 6, 19:30ean**  
Helduentzako zinea atalean, 'Sufragis-

tas' filma ikusteko aukera izango da. Sarrera, 5,50 euro.

## Lasarte-Oriatik Mundura

**XIRIMIRI ELKARTEA**  
**Larunbata 5, 12:00etan**  
'Lasarte-Oriatik mundura, mundutik Lasarte-Oriara' hitzaldi zikloan, Andoni Mujika herritarrek Saharako kanpamentuei buruz hitz egingo du.

## Islada Ezkutatuak

**UDAL BATZAR ARETOA**  
**Igandea 6, 12:00etan**  
Islada Ezkutatuak taldeak harekin batera lanean aritu diren herritarrek eta euren testigantzak partekatu dituzten herri-

tarrei eskerrak emateko ekitaldia antolatu du. Hitzak eta musika nahastuko dira honetan.

## Emakumeen nazioarteko eguna

**ELEBETZ TOPAGUNEA**  
**Astelehena 7, 19:00etan**  
Kafe tertulia egingo da. Lasarte Moria egitarauaren barruko ekintza.

### ELEBETZ TOPAGUNEA

**Asteazkena 9, 19:00etan**  
Identitate ez normatiboen inguruko 'El test de la vida' dokumentala eskaini eta Amets Jordan Arrietarekin solasaldia egingo da. Lasarte Moria egitarauaren barruan.

# Herritarren txokoa

### Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehena denez, gaur otsailaren 29an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazezina da eta odol falta dago!

### Barrikotea Udaberri elkartearen

Udaberri Andatza elkarteak martxoaren 4an barrikotea antolatu du. Parte hartu nahi duenak jar dadila elkartearekin harremanetan. Bazkide eta hauen lagunei zuzendutako ekintza da.

### Biyak Bat bidaiak

Biyak-Bat jubilatuen etxeak Sevilla eta Cacereserako bidaiak antolatu du maiatzaren 20tik 29ra.

Hilabete bereko 27tik ekainaren 5era antolatuta zen beste bat, baina autobusa bete da dagoeneko. Interesatuak izena eman beharko dute astelehenetik ostiralera 10:30etatik 12:30etara.

### Karteta jolasteko taldea

Emakume heldu bati larunbata arratsaldetan kartetan (mus, truke...) jolasteko taldea sortzea gustatuko litzaioke. Interesa duena jar dadila harremanetan honako telefono zenbakian 21:30ak baino lehen: 943 36 33 71, Ana.

# Hemeroteka

## Duela 1205 ale



TXINTXARRI aldizkariak Brigitarren komentu ondoan aurkitutako Lasarte familiaren dorretxearen aztarnen berri eman zuen. Aranzadi Zientzia elkarteak kideek egin zuten aurkikuntza eta garrantzia handikoa zela apimarratzen zuen Alfredo Moraza arkeologoa. Aranzadik XIV. mendeetako artxiboetan zeuden dorretxearen datuak kontuan izanik berresten zuen aurkikuntza. Morazak azaltzen zuenez, erreka harriekin egin zen dorretxea. Gainera, honekin batera errota eta burdin ola bat ere bazuden eremuan baina artxiboetan Mendar errekaurren aipamena zegoenez, dorretxea Hernani zela eta beste biak Urnietakoak zirela adierazten du. Hau guztiaz gain, Okendotarrak dorretxea eta komentuaren arteko pasabidea eraiki zutela ere aipatzen du. Arkeologia lan hauek Brigitarren komentu ingurunea berritzeko lanekin batera egin ziren eta aztarna hauek integratu, ezkutatu edo babesteko erabakia hartu behar zen. Udala Aranzadi eta Foru Aldundiko txostenaren zain zegoen iritzia emateko.

**Zuen oharrak jarri, kekek adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48

txintxarri@txintxarri.eus



Udal ordezkari, J.M. Mellado lehendakari ohi eta Juanjo Iñigo lehendakari berria eskubian ohorezko ardoan.



Larunbat arratsaldean parte hartu zuten taldeek talde argazkia atera zuten.

## Erkidegoari goratzarre

### Atzo, Andaluzia Erkidegoko egunean, Semblante Andaluz elkartearen jai giroa nagusi izan zen

**Lasarte-Orian hainbat dira Andaluzia Erkidegotik hona etorritako biztanleak. Atzo Andaluzia eguna izanik, Semblante Andaluz elkartearen egun berezia ospatzeko aukera izan zuten. Ekintzak ordea, ostiralean hasi ziren zuzendaritza aldaketa eta ohorezko ardoarekin. Larunbatean, berriz, musika eta dantzaz gozatu ahal izan zen elkartearen.**

#### TXINTXARRI

**S**emblante Andaluz elkartearen kide eta lagunek ederki ospatu dute asteburuan XXIII. Andaluzia Erkidegoko eguna. Ostiraletik igandera jai giroa izan da nagusi elkartearen.

Ostiralean, elkartearen kide, lagun eta udal ordezkariak ohorezko ardoarekin eman zieten hasiera ospakizunei.

Aurretik, zuzendaritza aldaketa izan zenez, lehendakari ohi den Jose Maria Melladok ongi etorria egin zien guztiei. Jarraian, Juanjo Iñigo lehendakari berriak hurrengo urteko 25. urteurre-

nari begira lan egingo zutela azpimarratu zuen.

Jarraian, luntxa egon zen Semblante Rociero abesbatzak eta Zambra dantza taldeak girotua.

#### Dantza eta musika

Larunbata arratsaldean, dantza eta musika izan ziren nagusi elkartearen.

Elkarteko Gitanillos del Alba, Duende Flamenco, Azabache eta Zambra dantza-taldeak oholta gainean izan ziren, baita Donostiako Ama Guadalupe Extremadura etxeko koru eta dantza taldea ere. Semblante Rociero koruaren emanaldiak eman ziren amaiera emanaldiei.

#### Andaluzia eguna

Igandean, Andaluzia Erkidegoko XXIII. egunean, goiz eta arratsalde izan zen jai giroa.

Arantzazuko Ama parrokian elkartu eta Semblante Rocieroren eskutik meza rozieroa izan zen. Baina koruaz gain, Gitanillos del Alba taldeko txikiek ere dantzatu zuten elizkizunean.

Bazkal orduan, elkartearen agintari, lagun eta kideei harrera egin ostean, Andaluzia Erkidegoko ereserkia abestu zuten. Koruaren hotsak jarraituta kantu egin zuten eta amaitzean, guztiak mahaiaren bueltan bildu eta ederki bazkaldu zuten.

Arratsaldeko zazpitan Amigos del Sur taldearen musikaz gozatu ahal izan zuten eta gorputza mugitzeko aukera ere izan zuten herri dantzaldiari esker.

Hau amaitzean, 21:30ak aldera, ospakizunei amaiera eman zizkieten.



Semblante Rociero taldeak meza rozieroa eskaini zuen atzo goizean.



Udal ordezkari eta talde gonbidatuetako mahaiaren giro ona izan zen.



Hainbat herritarrek EHBilduk Argi eta Iñakiri egindako omenaldi xumearekin bat egin zuten.

## Argi eta Iñaki gogoan

**A**tzo 13 urte bete ziren Argi Alturralde eta Iñaki Balerdi Juankar seme eta anaia bisitatzera zihoazela istripua izan eta hil zirenetik. Hori dela eta, asteburu honetan gogoan izan dituzte eta haien heriotza eragin zuen dispersio politika oraindik indarrean dagoela ere salatu dute bi ekintzatan.

#### Lore eskaintza

Atzo goizean, EH Bilduk lore eskaintza egin zien Askatasun plazako 'Biharraren memoria' eskulturaren ondoan. Bertan

dispertsioaren eraginez onartuak ez dauden 16 biktima daudela azpimarratu zuten EHBilduko kideek eta Udalarari eta Eusko Jaurlaritzari biktima bezala onartzeko eskatu zieten.

#### Elkarretaratzea

Bestetik ostiralean, hilabeteko azken ostiraletan bezala, euskal presoen aldeko elkarretaratzea egin zen eta bertan omenaldi xumea egin zieten. 'Argi eta Iñaki gogoan. Dispersioarekin amaitu' lelopean batu eta krisielua ezarri zuten honen aurrean.